



Ehunka lagunek lanpostuak salbatzearen aldeko aldarria egin dute Tolosako kaleetan

ELAk eta LABek deitutako manifestazioari erantzunez, Tolosaldeko herritarrak kalera atera dira azken hilabeteotan enpresa itxieren eraginez, kolokan dauden lanpostuak defendatuz **6**

tolosaldeko ataria



TOLOSALDEKO hitza



Asteartea, 2013ko abenduaren 17a. 1. urtea. 43. zenbakia. www.ataria.info

Aitor Mendiluze Bertsolaria

«Aurtengoa gure belaunaldiaren txapelketa izan da»

Bertsolari Txapelketa Nagusiko azken saioan maila ona emanda, laugarren postuan amaitu du Iruran bizi den andoaindarrak; finalaurrekoetatik barruan zuen arantza atera du finalean egindako lanarekin **4-5**



Aitor Mendiluze eta Haritz elkarguneko Mikel Artola, sari banaketan. L. ZUBELDIA



Tolosako Santa Maria parrokia txiki geratu zen Labaienen hileta elizkizunean. I. TERRADILLOS

Ramon Labaienek herrigintzari utzi dion ondarea goraipatu dute

Ramon Labaien politikari eta euskaltzale tolosarraren hileta elizkizunean alderdi guztietako ordezkariak izan dira; bere izaera «zubigilea» nabarmendu dute **2-3**



Etorri **ataria**ko egoitzara
2014ko mahai egutegiaren bila!



tolosaldeko
ataria
San Esteban, 20 • Tolosa
943 65 56 95

Euskaltzale sutsuari adio



Antonio Maria Labaien aita omendu zuten 2011ko Tolosako San Joan jaietan. A. I.

Iñigo Urkullu lehendakaria zein Carlos Garaikoetxea lehendakari ohia izan dira Ramon Labaienen hileta elizkizunetan

I.T / A.O. TOLOSA

«Zubigilea», «kementsua», «euskaltzalea», «eredugarria»... Ramon Labaien (Tolosa, 1928-Donostia, 2013) definitzerako orduan bat etorri ziren haren hileta elizkizunetan bildu ziren politikariak eta erakundeetako ordezkariak. Egungo Eusko Jaurlaritzako lehendakari Iñigo Urkullu zein lehen Eusko Jaurlaritzako lehendakari Carlos Garaikoetxea izan ziren atzo Tolosan, EAJko, Bilduko, Ezker Abertzaleko edota PPko ordezkariekin batera. Besteak beste,

han ziren Bakartxo Tejeria Eusko Legebiltzarreko presidentea eta Ramon Labaienen erraina, Cristina Uriarte Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Kultura sailburua edota Ibai Iriarte, Joseba Egibar, Eneko Goia, Olatz Peon, Tasio Erkizia, Floren Aoz, Pernando Barrena, Juan Carlos Izagirre, Maria Jose Usandizaga eta beste hainbat politikari eta agintari. Halaber, han ziren Miren Azkarate euskaltzaina edota Gorka Landaburu eta Martxelo Otamendi kazetariak. Horiekin batera, herritar ugari hurbildu zen Santa Maria elizara Ra-

mon Labaien zenari azken agurra ematera.

Eukaldun eta euskaltzale

Larunbat goizaldean hil zen Ramon Labaien politikari tolosarra 86 urte zituela. Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburu eta Donostiako alkate izan zen 80. hamarkadan. Euskalduna eta euskaltzalea zen, eta Euskal Estatuaren helburu. Dena egiteko zegoenean sartu zen frankismoaren ondorengo Eusko Jaurlaritzan, eta dena egiten saiatu zen. Euskarazko telebista eta irrati publikoa, HABE, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, Antzerti eta Euskararen Legea bere agintaldiko fruitu dira.

Antonio Maria Labaien politikari eta idazlearen semea 1928. urtean jaio zen Tolosako San Frantzisko pasealekuan. Aita Tolosako alkatea zen, EAJ alderdikoa, 1936ko gerra piztu zenean, eta Lapurdin babestu zen familia osoa. Ziburun eta Saran 9 urtez bizi ostean, Donostian jarri ziren bizitzen, eta han batxilergoa bukatu zuen. Madrilera jo zuen gero, eta han Kimikan lizentziatu zen. Familiak San Adrianen (Nafarroa) zuen izotz fabrikari aritu zen kimikari, baina ez zuen askorik iraun. 1958an Donostiako Londres hotelan hasi zen, eta zuzendari izatera iritsi zen. 1980an, bertan lanean ari zela, deitu zioten Eusko Jaurlaritzara joateko.

Ordurako sartua zen politikan,

EAJren eskutik. Donostiako alkateorde zela joan zen Jaurlaritzara. Carlos Garaikoetxearen gobernuan izan zen Kultura sailburu. Herrizaingo sailburu izatea ere proposatu zioten, baina, gauzak konplikatu zitezkeela aurreikusten zuen, eta ez zuen onartu. Donostiako Udalera itzultzeko utzi zuen Jaurlaritza, alderdiak hala eskatuta. Donostiako alkatezara aurkeztu zen, eta kargu horretan aritu zen 1983tik 1987ra. «Burgesiaren alkate» definitzen zuen bere burua. Beste lau urtez alkatez egoteko saioa ere egin zuen, baina EAJren eta EAren arteko banaketak kaltea besterik ez zion ekarri Labaieni: EAJ seigarren indarra izatera pasa zen Donostiako Udalean, bi zinegotzirekin. Labaienek dimititu egin zuen orduan, eta enpresa pribatura itzuli zen, SAPA arma fabrikara. Gai militarrean aholkulari izan zen orduetik, 2010. urtean erretiroa hartu zuen arte.

Bazuen inoiz utzi ez zuen afizio kurioso bat ere: metal zurizko soldadutxoak egiten zituen, eskuz. Erretiroa hartu zuenean ere ez zen erretiratu lan horretatik. Egungo ordu pare bat egiten zituen etxean horretarako propio prestatutako txokoan. *Gudariño*—berak asmatutako hitza—deitzen zien. Labayen SA enpresa ere sortu zuen horretarako, Fermin Galarretarekin, 1960ko hasieran, afizioari ekin ziotenean.

Euskal Estatu

Txikitatik bizi izan zuen Euskal Estatuaren ideia, alderdiarena baino gehiago. Labaienen pentsaera ulertzeko gakoetako bat erbestealdiaz kontatutakoan topa daiteke. 1936ko gerran, aitak eta gainerako senitartekoei bananduta egin zuten Lapurdirako bidea. Aita iritsia zela, Ramon anaia eta amarekin Zarautzen egon zen lehenbizi, eta Oñatin gero. Batetik bestera bidaia egin zuten egunean Loiolan bazkaldu zuten, eta han gudarien kuartel nagusia zegoen: «Guk sinesten genuen Euskal Estatu bat zegoela. Guk ikusi genituen gudariak. Loiolan. Han zeuden gudariak. Guretzat ez zegoen alderdirik. Han (Iparraldean) hazi garenok ez gara sekula alderdi bateko pertsonak izan. Euskal Estatu batean sinistu dugu. Gaur egun falta zaigun estatu zentzua izan dugu».

Azken urteetan, Independentistak sarean zebilen. EAJkoa bazen ere, jeltzale askorik gabeko tokietan ere azaldu zen Labaien, konplexurik gabe, bere ideiei jarraituz. Euskal presoaren eskubideen aldeko ekitaldietan ere parte hartu zuen, eta baita, *Bateragune auzian* zigortutakoak aske uzteko eskatuz egindako beste hainbatetan. *Egunkaria auziaren* kontra ere aritu zen sutsu lanean, besteak beste, diru bilketan. Azkenak Taldearen sortzaileetako bat izan zen.

• ataria@ataria.info •



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Erreakzioak

IBAI IRIARTE

Tolosako alkatea

«Euskaltzalea eta askatasunaren laguna zen»

«Egun tristea da euskaldunentzat, euskal kulturgintzarentzat, euskaltzaleentzat. Belaunaldi baten ispilu izan da. 1936an alde egin behar izan zuen herri honekiko konpromisoarengatik. Euskalduna, euskaltzalea eta askatasunaren laguna, pertsona libre zen zentzu guztietan. Bere oroimenik hobere-na da utzi digunean lanean jarraitzea, Euskal Herriaren alde, kulturaren alde eta herri hau eraikitzen».

JOKIN AZKUE

Eusko Jaurlaritzako euskara sustatzeko zuzendaria eta EAJko zinegotzia Tolosan

«Galera handi bat da»

«Euskararentzat eta euskal kulturarentzat galera handia da. Belaunaldien arteko transmisioa egiteko ezinbesteko erreferentzietako bat galdu da. Izan ere, 36ko gerra osteko Euskal Pizkundea bizi eta ongi ezagutu zuen. Gizon kementsua zen, eta bere iritziak irmotasunez defendatzen zituen, baina aldi berean, besteen ideiak errespetatzen zituen. Eginiko lan guztia aitortzea dagokigu orain».

JOSEBA EGIBAR

GBBko presidentea

«Euskal kulturaren aldeko aktibista handi bat zen»

«Euskaltzale, abertzale handi bat zen, aktibista handi bat ere bai; euskararen eta euskal kulturaren aldeko aktibista handia. Herrigintzarekin lotura zuen guztiaren alde zegoen, eta mila erataria maite zuen herri hau. Belaunaldi berriek haren testigantza hartu beharko lukete».

BAKARTXO TEJERIA

Eusko Legebiltzarreko lehendakaria

«Bere naturaltasuna nabarmenduko nuke»

«Azken urteetan oso gertu egon gara, asko hitz egin dut berarekin. Bere naturaltasuna nabarmenduko nuke, edozein herritarrekin errespetuz egoteko eta hitz egiteko zuen jarrera. Denon begien bistan ikusten zen hura zen Ramon. Lan handia egin zuen euskararen eta euskal kulturaren alde, eta argi eduki zuen euskara guztiena zela».

CRISTINA URIARTE

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Kultura sailburua

«Izugarriko ondarea utzi digu»

«Lehen Eusko Jaurlaritzaren gobernuan hartu zuen parte, eta erreferentziazkoa izan da kulturaren hark eginiko lana. Izugarriko garrantzia du hark arlo horretan eginiko lanak, izugarriko ondarea utzi digu eta hori, gurekin gelditzen da».

JUAN KARLOS IZAGIRRE

Donostiako alkatea

«Alkate on bat galdu dugu»

«Alkate eredugarri bat joan zaigu. Nik pertsonalki ezagutzeko zortea izan nuen, eta esan dezaket alkate on bat galdu dugula. Beti zegoen lanerako prest, eta batik bat, euskaltzale gisa eginiko lana gorai patuko nuke beste ezerean gainetik».

OLATZ PEON

EAJko zinegotzia Tolosan

«Tolosako enbaxadorea izan da munduan»

«Euskara eta euskal kulturaren alde eginiko lana gorai patu behar da.

Eta Tolosari lotuta, nabarmentzekoa da oso tolosarra izan dela; Tolosako enbaxadorea izan da munduan zehar. Hemen egin genituen ekitaldietan ere aktiboki parte hartu zuen, dela Batzokiaren inaugurazioan dela Aitzoli eginiko omenaldian».

ENEKO GOIA

EAJko zinegotzia Donostian

«Denbora zailtan lan handia egin zuen»

«Sinesten zuen ideien alde oso sendo egiten zuen, pertsona erradikala zen, oso sutsua sinesten zuen ideien aldeko defentsan. Abertzalea, euskaltzalea... denbora zailtan lan handia egin zuen Ramonek. Gaurko Euskadiren zutabeak hark eginiko lanari esker eraiki dira».

TXUTXI ARIZNABARRETA

Independendistak sareko bozeramailea

«Zubigile gisa pertsona aparta izan zen»

«Hasieratik izan da independentistak sareko kide; gure aktibista sutsuenetako bat joan da. Oso lan interesgarria egin du, eta oso gogotsu parte hartzen zuen hainbat ekitalditan. Zubigile gisa pertsona aparta zen, sensibilitate ezberdinetako jendea biltzeko gaitasuna zuen. Nik pertsonalki oso harreman gozoa eduki dut berarekin, luze eztabaidatzen genuen».

JOSE MARI OTERMIN

Euskadi Irratiko zuzendari ohia

«Euskalduntasuna erakustea gogoko zuen»

«Bere euskalduntasuna eta Euskal Herriarekiko maitasuna nabarmen garriak dira, eta horiek leku guztietan erakustea gustatzen zitzaion.

Artearekiko zaletasuna ikaragarria zuen; arte eta kultura munduko disziplina asko lantzen zituen».

IÑAKI ARRATIBEL

Kirol medikua

«Euskal kulturaren alde bultzatzaile lana egin zuen»

«Alde batetik, gizon jakintsua zela, kultua, nabarmenduko nuke. Eta euskal kulturaren alde bultzatzaile lana egitea nola egokitu zitzaion. Halaber, beti aritu zen euskararen alde eta abertzaleentzako alde gogor lanean; herri honek aurrera egiteko eman beharreko pausoak emateko gogotik egin zuen lan. Eta hori guztia alderdi desberdinen arteko elkarlana bilatuz, herri honek hainbeste behar duen elkarlana».

EMETERIO ZALDIBIA

Laskorain ikastolako zuzendari ohia

«Oso garbia zen bere jarretan»

«Sekulako pena hartu dut haren heriotzarekin. Nik ez nuen zuzeneko harremanik izan berarekin, ni Tolosan nengilenean lanean hura Donostian ari baitzen. Baina hark eginiko lanak zuzeneko ondorioak izan ditu. Esate baterako, Euskal Telebista euskaraz izaten. Nik Ramonen euskaltzaleentzako eta abertzaleentzako nabarmenduko nituzke, argi eta garbi esaten zuen abertzalea zela. Oso garbia zen bere jarretan, eta eskertzen da hori».

MARTXELO OTAMENDI

'Berria'-ko zuzendaria

«Abertzale handi bat joan zaigu»

«Gizon alai izan da beti, oso hizketazalea. Abertzale handi bat joan

zaigu. Gogoratzekoa da ze lanak izan zituen Eusko Jaurlaritzako kultur sailburua zenean, konbentziteko lehenengo Jaurlaritzaren ETB egiteko euskaraz, ez baitzegoen dirurik, eta ez baitzuten ikusten euskarazko telebista egiteko beharrik. Ramonek esaten zuen beti Euskal Telebista zela euskararen defentsa ministerioa. Jelkidea zen, baina, alderdiaren disziplinatik aparte, beti oso aske ibili zen. Bertso libre bat zen. Belaunaldi oso bat joan zaigu, eta gure belaunaldiak zor dio belaunaldi horri gu abertzaleentzako bidean sartu izana. Haiek amestu zuten Euskal Herri libre, euskaltzale eta abertzale hura lortzeko bidean sartu izana zor diogu belaunaldi hari».

KIKE AMONARRIZ

Soziolinguista

«Euskararen eta Euskal Herriaren eraikuntzan beti egon da prest lanerako»

«Atsekabea sentitu dut, ikaragarri estimatzen nuen pertsona zelako. Euskal Herria Euskaraz-en izenean Eusko Jaurlaritzara joan ginen euskarazko telebista bat eskatuz gutun bat ematera, eta segituan jarri zen gurekin harremanetan, eta babes osoa erakutsi zigun. Euskararen eta Euskal Herriaren eraikuntzaren inguruko ekinbide guztietan beti prest egon da lanerako. Beti ezagutu dugu indartsu, kementsu, alai, ilusionatuta Euskal Herriaren geroa eraikitzeko. Galera handia izan da. Belaunaldi oso bat galtzen ari gara. Belaunaldi horrek jakintza eta esperientzia bat bizi izan du, eta beraien irakaspena ere bada azken urteetan eskatzea urrats berri eta sendoak ematea eta elkartasunezko bideak urratzea Euskal Herrian. Herri gisa, nazio eraikuntzan eta hizkuntzaren normalizazioan, eratzeko».

Iritzia

RAMON LABAIEN, TOLOSARRA ETA EUSKALTZALEA



JOXEMI SAIZAR
IRAKASLEA

Euskal Herriko azken mendeko historiaren lekuko zuzena hil da asteburuan: Ramon Labaien Sansinenea. Gerra zibila, frankismoa eta trantsizioa zuzenean bizitu zituen. Horregatik ez da ha-

rritzekoa gai hauei buruz Tolosaldean egin genituen bi liburuetan errepikatzen den pertsonai elkarrizketatu bakarra bera izatea. Aurretik ezagutu genuen eta bagenekien oroimen handiko pertsona zela, tratu errazekoa, kultura eta mundua zuena. Horregatik aukeratu genuen bi liburuetarako. Eta ez ginen damutu.

Gizon abertzale eta euskaltzalea ezagutu genuen. Etxetik jaso zituen bi ezaugarri horiek eta bizitzan zehar tinko eutsi zien. 1936ko gerra piztu zenean bere aita zen Tolosako

alkatea eta erbestera joan behar izan zuen familia osoak. Ihesa, Sarako bizimodua eta kultur giroa azaltzen zituen. Jaioterrira itzultzean aurkitu zuen giro ilun eta tristea kontatzen zuen, Sindikatu Bertikalak konfiskatutako etxea nola berreskuratuz zuten, burgesiako familiako partaide izanik bere mailako kideekin nola erlazionatzen ziren normaltasunez Casinon, frankismoaren bukaera aldera pixkanaka eman zen bilakaera herriko gizartean...

Gerra aurreko ikastolako ikaslea izan zen eta XX. mendeko gertaera-

rik garrantzitsuena kultur mailan 1967an Laskorain ikastola sortzea izan zela azpimarratzen zuen. Bere aita izan zen sortzaileetakoa. Tolosako gizartean shock bat izan omen zen ustez desagertuta zegoen euskaltzaleentzako berpizten ikustea.

Ezkondu zenean joan zen Donostiarra bizitzera. Bertako alkate izatera iritsi zen eta geroago Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua, EITB, Euskadiko Orkestra eta HABA sortuz besteak beste. Baina Tolosarekin ez zuen sekula harremanik eten. Oso tolosarra sentitzen zen, Plaza Zaha-

rrean jaioa zela gogoraraztea gustatzen zitzaion. Edozein ekitaldiren aitzakian, gustura etortzen zen. Azkena, Euskal Pizkundeari buruzko jardunaldietan, adibidez.

Jelkide heterodoxoa zela adierazten zuen azkenaldian, bere ekintza eta adierazpenetan, normalean bere alderdiak sinatzen ez zituen ekimen eta plataformetan bere laguntza emanez. Presoen eta independentziaren alde, besteak beste.

Gizon alai, jantzia, ekintzaile, bizia, atsegina eta euskaldunon eredu joan zaigu.

Aski eta asko izatearen magia



BECeko publikoaren harrera ezin hobea izan zen, eta txaloei txaloak itzuliz eskertu zuten bertsolariek. ALBERTO ELOSEGI / BERTSOZALE ELKARTEA

Final paregabea osatuta laugarren postua eskuratu zuen Mendiluzek; beren belaunaldiaren finala izan zela dio

ITZEA URKIZU

«Zuentzat ez da aski izango / baina neretzat asko da» esanez agurtu zituen, Aitor Mendiluzek, BECeko 13.500 lagunak. Aski zena asko izatera heltzeko bertsoaldi paregabeak osatu zituen Iruran bizi den ando-aindarrak, eta txapelketako aurreko

saioteko zapore gazi-goza hura ondo gozatu zuen.

1.155 punturekin laugarren postua eskuratu, eta gogoan duen finalik «onenetakoa» bizi izan zuen ohol-tzatik. Berea izan zen, gainera, eguneko bertsoaldirik baloratuena, puntukako ariketan: 165 izan ziren jaso zituen puntuak.

Puntuak puntu, Euskal Herriko bertsosazaleak ere beren arantzak ateratzea joan ziren Barakaldora, antza, Mendiluzeren bidetik. Bokadilo, hamaiketako eta sagardo botil- len gaintetik, txalo zaparradarik be-roenak jaso zituzten gai sozial eta al-darrikapenek.

Egungo errealitatearen inguruko bat-batekoak entzun eta saritzeko gune izateaz gain, ordea, bertsoza-letasunetik haragoko zerbait bilaka-tu zen BEC. Aspaldi ikusi gabeko

ezagunen, duela zazpi urte ikaskide izandako lagunaren edo udalekuegan elkar ezagututako jendearen topa-gunea izan zen igandean Bizkaia Arena, eta guztiak txapelaren itza-lak elkartu zituen.

Txapelara heltzeko bide horretan, bertsolariek altxarazi zuten publi-koa, eta publikoaren beroak sutan jarri, haien *mihiko polbora*. Nahikoa, pozik izateko aski diren gauza txiki horiek, 13.500 bertsozaleren oroi-menean asko izatera pasatzeko.

Leidorren goi-mailako saioa

Urtarrilaren 18an izango da, larun-batarekin, eta Leidor aretoan. Goi-mailako bertso saioa antolatuko du TOLOSALDEKO ATARIA komunikazio tal-deak, 18:00etatik aurrera.

Amaita Agirrerren gaiek gidatuta, Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Igor Elortza, Jexuxmari Irazu, Jon Maia eta Andoni Egaña bertsolariek ariko dira kantuan, eta sarreraren sal-mentaren berri datozen asteotan izango da.

Iritzia

EZIN KABITU

OIHANA IGUARAN BARANDIARAN HARITUZ-EKO KIDEA

Gaia ematean, doinurik ez baina neurria jarri didate. Neurgaitza hemen kabitzen saiatuko naiz, atzo bertsolariek mundu bat 10/8an nola. Atzokoaz bada zer kontatua eta zer kantatua.

Goizetik utzi zuten argi bertsola-riek festan geundela. Gaztelumen-dik, «jolasera eta jokora» zetoze lai-tortu zuen. Gauza bakarrarekin ez zegoen Arzallus jolasteko prest: «amets egiteko eskubidea» rekin. Ametsak oso jolas serioa dira.

Eta txapela amets baino, jolas bihurtu zen. Nik behintzat, dozena bat txapel banatuko nituelako: Sus-trairi bat, emango ez duenari eska-tzeagatik; Beñati beste bat, bere aldean sentiarazteagatik; Maialeni bat, *barrea barreago delako mina-rekin nahastuta*; Mendiluzeri bi, puntukako ariketa eder hori opari-tzeagatik; Sarriegiri, *berdindu ezin den kartzelako lanagatik*; Igorri, *hankak hain dain lokazteagatik*; Ametsi, ironiagatik; Unairi, ezin de-lako hobeto *hil*.

Txapelik ezean, txaloak banatu ni-tuelako; Joxe Agirrez oroitutako nintzela-

ko; harrotasuna *Harituz* doalako... Goizean malkoak irentsi, eta arra-tsean erautsi; ezin eutsi.

Baina nire kontraesanek duten koherentzian, zutik harrapatu nin-duen txapeldunaren izenak. Gai jar-tzaileak azkenean esan zuen: «Amets Arzallus Antia» (eta nik Amets Arzallus handia ulertu nuen). Eta bai, jolasean bazen ere topa egin genuen *gure kafe-kikarekin*. Topa Ametsengatik, ametsengatik eta Iparraldera joan zen lehen txapelagatik.

Jokatu zuenak irabazi egin zuen, eta jolastu zuenak gehiago. Txaloz eta malkoz hustu nintzen, hemendik zortzi urtera gogoratuko dituda-nez bete. Hustuta bezain BECteta atera nintzen.

Emozio BECtekada

BEÑAT AZALDEGI LAKUNTZA HARITUZ-EKO KIDEA

Zirraren eguna edo 13.500 la-guneko emozio betekada. Bertsolari Txapelketa Nagusi-ko finalak utziriko aje gozoarekin gaude, oraindik, igandean Barakal-dora hurbildu ginenok. Betekada diot, protagonistek ongi beteriko bertsoek barrenak bete zizkigutela-ko goizetik arratsera bitarte. Eta be-tekada, 13.500 lagunek osaturiko plaza erraldoia indar betekada bat delako, jendez gainezka ikusita.

Gu betetzeko, zortzi protagonista husteko prest. Hasieratik nabaritu

zitzaien dena ematera zihoazela, eta beherakada puntualen bat sal-bu (oraindik ez dut gogoratzen noiz eta norena), maila izugarriko bertso-aldiak eskaini zizkiguten. Ederki sur-featu zuten, bakoitzak bere firma-txoa utziz, Bizkaia Arenako olatu erraldoian.

Amets Arzallus txapeldun. Garai-pen justu eta aski merezia. Hala ere, igandekoa bertsolari belaunaldi oso baten garaipena dela esango nuke. Txapela hendaiarraren burura, bai-na urte askotan elkarrekin plaza ugari egin eta beren bertsolari-bizi-tzaren garai indartsuenean, samu-rrenean, txapelketak harrapatu di-tuen bertsolari generazio oso baten garaipena izan zen igandekoa.

Belaunaldi honetako partaide, eta gure eskualdeko kide da, Aitor Mendiluze. Murgian eta Maulen abesturikoarekin erabat asetuta geratu ez, eta bere buruarekin zorrak kitatzera joan zen finalera. Zorrak kitatu soilik ez, entzulearen biho-tzak ere josi zituen eguneko momentu askotan. Bejondeizula Aitor!

Azken aipamena Harituz Tolosal-deko bertsozale elkarguneari. Ez da kasualitatea sari banaketan leku-txoa izatea, zerbait ondo egiten ari garen seinale da. Biba zuek!

BENTA-ALDEA-bi

Belate pasealekua 1, behea • TOLOSA • 943 506 638

Mauka berria

Zarauzko Egurre parkean 15 egunetarako bonua

Egurre Park elkartea
Bustinzuri Kalea, 2
Zarautz 20800 GIPUZKOA
Tel.: 679-92 26 79
mangaramp310@gmail.com

GAURKO ESKAINTZA

Prezioa 8,5€

www.mauka.eu

berria taldea

Aitor Mendiluze • Bertsolaria

«Zeure burua oso ezkor epaitzen duzu askotan, zorrotz»

ITZEA URKIZU

Finalaren biharamunean aparretatik oraindik jaitsi gabe dabil Aitor Mendiluze (Andoain, 1975). Txapelketa nahi bezala hasi ez bazuen ere, BECeko finalean azti jolastu zuen hitzekin. Lau urte barru nola izango den ez daki, eta orain arte bezala bertsotan jarraitzea mugarriztat du.

Finalera arantza kentzera joango zinela aipatu zenuen, puntuekin pentsatu gabe. Helburua bete al duzu?

Bai. Gehiago eman nezakeela iruditzen zitzaidan, gehiagoko momentua ere bazela niretzat; txapelketa garrantzitsua. Hori emateko gogoarekin joan nitzen, eta gustura nago.

Laugarren postua espero al zenuen BECen?

Egia esan ez nengoen ziur, ez neukan postuaren sentsazio garbirik. Gertatzen dena da, oholtzako gure sentsazioak oso faltsuak direla. Zeure burua oso ezkor epaitzen duzu askotan, zorrotz behintzat; lagunena, berriz, hobe iruditzen zaitzu, baina ez duzu erabateko arretaz jarraitzen. «Gustura nago, lan polita egin dudala uste dut, postu txukun bat lor dezaket baina ez daukat ezer garbirik oholtzan», pentsatzen nuen nik. Epaimahaiaren emaitza entzun nuenean oso konforme geratu nintzen.

Gaiekin-eta eroso aritu zinen?

Bai, orokorrean bai, eta ez finalean bakarrik. Txapelketan zehar, uste dut gai-jartzaile taldeak sekulako lana egin duela. Beti izaten da kritikatzeko moduko gairen bat behar bada, baina orokorrean oso lan ona egin dutela uste dut. Gure emaitzaren zati garrantzitsua da hori ere, eta gure emaitza izan den bezalako baldin bada, zerbaitengatik da. Ez da bakarrik guk bertsotan hobeto

Kolektibo moduan bizi izan du bertsolariak 2013ko Bertsolari Txapelketa Nagusia; aurtengoa beren belaunaldiaren txapelketa izan dela uste du



ALBERTO ELOSEGI / BERTSOZALE ELKARTEA

edo okerrago egin dugulako, baizik eta jarri dizkiguten aukera edo baliabideekin lotura bat baduelako.

Txapelketan gai serioekin aritzen zarete normalean. Igandean, ordea, puntukakoan umore ukitua eman zenioten finalari. Olentzero eta Aita Noelen gaiarekin, finaleko bertsoaldirik puntuatuena izan zen zurea. Gustura aritu zinen?

Bai, bai, egia esan han bai. Bereziki fresko sentitu nintzen, bereziki erraz ari nintzela iruditu zitzaidan. Txapelketan, nahita edo nahigabe, momentuko tentsioak ere eragiten dizu, askotan, sentsibilitate batzuk gehiago piztea, eta gehiago jotzea gai serio, sozial eta askotan dramatikotara. Gainera, norberaren kezka ere, askotan gehiago joaten dira hortik, umoretik baino. Horregatik, kontrapuntu hori ere gertatzen da: horrelako saio garrantzitsu batean umorezko gai bati txinparta ateratzen diozunean sentsazio oso-oso bete duzu batetik

Zein da, bada, beste aurpegi hori?

Umorea gai sozial horiei erantzuteko modu bat ere badela pentsatzen duzu. Agian gehiagotan egiten saiatu beharko genuke; gero egitearena beste kontu bat da.

Banaka gusturago aritu zinen gaia emanda, kartzelakoan baino?

Bietan aritu nintzen gustura, oso arrazoi desberdinengatik. Goizean niri etorri zitzaidan lehenengo auke-

“ Txapelketan zehar gai-jartzaile taldeak sekulako lana egin du »

retako bat gaiari ikuspegi politiko bat ematea izan zen. Ez nuen, ordea, neure burua hor ikusten. Errepikakorragoa izateko arriskua ere banuen, gainera. «Nire pentsamendutik, nire momentutik gertuago aritu nahi dut», pentsatu nuen. Irakaslea naizenez, egunero bizi dudana gai bati heldu nion: hezkuntza, eta ho-

rre dituen kezka eta arazoak. Bertsuak izan zitezkeen hobeak seguruenerik, baina mezu aldetik behintzat nahiko koherentea izan nintzen.

Zerk bete zintuen arratsaldekoetik?
Gai sozial bat zen, eta gai horri uste dut erantzun polita eman niola. Hango sentsazio positiboa bestea zen: bertsotan egiteko garaian sentitzen nuen erraztasun eta askatasuna.

Arzallus eta Lujanbio buruz-burukoan ikusten al zenituen?

Ez neukan garbi zein izan zitezkeen. Biek aukerak zituztela ikusten nuen, noski, baina beste batzuek ere bai. Zorionez, igandeko finalean ez zen beste batzuetan bezalako alderik izan lehenengoan eta besteon artean; punta ez zen beste final batzuetan bezain goran izan. Baina orokorrean saioa askoz orekatuagoa izan zen, eta nahiko maila altukoa, denon aldetik. Horrela, Amets eta Maialen, Amets eta Igor edo Igor eta Maialen, besteren bat edo neu sartu

izan bagina, ez nintzatekeen horrenbeste harrutuko, eta ezta besteak ere. Hori final baterako positiboa da, jendeak beste intentsitate batekin bizitzen duelako. Hala ere, erabat ados nago sailkapenarekin, eta lagun handiak diren heinean, beraien-gatik ere oso pozik.

Zuen artean zenuten giroak epela zirudien publikotik.

Guretzat belaunaldi-apustua zen. Txapelketa hala da beti, baina, nagusiki, gure belaunaldiaren txapelketa zen aurtengoa. Uste dut bage-neukala behar hori; ez txapelketari erantzutekoa, baina bai aldaketa hori irudikatzekoa. Gu ginen zaharrak eta gazteagoren bat ere ibili da, baina beste kolektibo-sentsazio bat izan dugu. Ez dakit horregatik den edo ez, baina goizetik oso giro onean bizi izan genuen igandekoa, oso gertu, elkarrekiko maitasun handiz, besteengatik kezkatuta eta besteak animatzen. Nik behintzat horrela sentitu nuen, eta benetan pozten nau publikotik hori jaso izanak, egin genezakeen gauzarik politenetakoa dela uste baitut.

Publikoaren harrerak ere berotasun pixka bat eman zizuen, ezta?

Bai, eta ez finalean bakarrik. Txapelketa osoan ikusi da jendearen emana eta gogoia, eta Iñaki Muruak esan zuen bezala, poza eta pena da hainbeste jende inguratu nahi izatea, eta sarrerak agortzea. Baina poza gailentzen da, jende hori baita urtean zehar eta herriz herriko saioetan ikusiko duguna eta ikusiko gaituena. Eta horrek osasun irudi oso-oso dotore bat ematen du.

Sari banaketako besarkada ere hunkigarria izan zen, Harituz-eko Mikel Artolarekin.

Une hartan oso gertu sentitu nuen. Mikel lanean izan zen han, eta egun osoan guri laguntzen aritu zen. Bestetik, lankidea eta laguna da, eta nahi bezain aktibo aritzen ez naizen arren, ni ere Harituz-eko kide sentitzen naiz. Oso momentu polita izan zen, eta besarkada ere oso bat-batekoa izan zela uste dut. Horrelaxe irten zitzaidan, eta berak ere horrelaxe hartu zuela uste dut, hunkitu baitzen. Gogoratzeke momentua izango da.

EUROMIKEL'S

Zergatik ordaindu hainbeste urteroko kotxearen, motoaren, furgonetaren edo kamionetaren azterketa edo olio aldatzea

Hiru erataria egin dezakezu:

Zuk eginda, zuk gurekin ikasiz eginda edo guk eginda.

Deitu eta eskatu prezioak konpromisorik gabe 943 36 08 50 edo boxes@euromikels.com



Tolosaldea



Ehunka lagunek zeharkatu zituzten Tolosako kaleak, lanpostuen defentsan. ASIER IMAZ

Euskal Kopan ezin, baina ligan indartsu

Tolosak 24-37 galdu zuen Bidasoaren aurka kopan, baina 26-29 irabazi zuen larunbatean ligan

ko talde bati 24 gol sartzea ondo dagoela uste dut» aipatu zuen Kike Mujika entrenatzaileak.

Asteburu ia borobila

Euskal Kopatik kanpo, ligan zentratzea tokatzen zitzaien talde tolosarrari asteburuan. Elgoibarren jokatu zuen, Sanlo-ren kantxan, eta garaipe garrantzitsua lortu zuen. Partida orekatua izan zen, atsedendian 13-15 aurretik ziren urdinak, eta aldea mantentzea lortu zuten bigarren zatian. Azkenean 26-29 nagusitu ziren.

Tolosa seigarren da sailkapen nagusian 16 punturekin, bigarren postutik bi puntura. Denboraldia hasi aurretik jarritako helburua beteta dutela dio Mujikak: «Mailan mantentzea zen gure helburua, eta dagoeneko lortu dugu, beraz gustura gaude».

Orain atsedean hartzeko denbora izango dute tolosarrek, urtarrilaren 11ra arte ez baita partidarik jokatu. Egun horretan, Dominicos Zaragozaren aurka jokatu dute.

Gainontzean, asteburu ona izan da beste mailatako taldeentzat, ia denek eskuratu baitute garaipena. Lehen maila territorialeko taldea izan da irabaztea lortu ez duen bakarra, 27-33 galdu ostean Ordiziaren aurka. Jubeniletan, urdinak 38-47 hartu zuten mendean Egia. Kadeteetan berriz, 9-27 nagusitu ziren Bergararen aurka. Infantil mutilek 28-12 irabazi zioten Amenabarri, eta neskek, 16-9 Eibarri. Nesken lehen garaipena da.

MIKEL IRAOLA TOLOSA

Tolosak ezin izan zuen Bidasoa garaitu Euskal Kopako final laurdenetan. Ez zen partida erraza Kike Mujikaren mutilentzat, parean aurkari sendoa baitzuten. Entrenatzaileak berak ere hori nabarmendu zuen partidaren amaieran: «beste maila batean daudela erakutsi dute».

Irundarrak nagusi izan ziren markagailuan lehen minututik azkenerraino. Tolosarrek lehen ordu laurdenean baino ez zuten lortu aurkaria estutzea. Defentsan gogor ziren eta atepean seguru zen atezaina, baina gol ederrak lortu zituzten urdinek. Hala ere, lehen zatia erditik aurrera bidasoarren euren kalitatea eta indarra erakutsi zuten eta aldea areagotuz joan zen. Bigarren zatian tartea handitu zuten Fernando Bolearen mutilek, eta azkenean, 24-37 amaitu zen partida.

Emaitza gutxienezkoa izan zen Usabal kiroldegian festa itzela bizi izan baitzen. 600 pertsona inguru bildu ziren eta giro bikaina izan zen harmailetan. Zaleek txalo artean agurtu zituzten tolosarrak. Jokalariak eta entrenatzaileak ere gustura azaldu ziren: «Gaur gehienbat disfrutatzera etorri gara, eta disfrutatu dugu. Asobal liga-



Partidaren amaieran talde bietako jokalariek argazkia atera zuten. M.I.

Tolosaldea kalera irten da enpleguaren defentsan

Ehunka lagunek eskualdean lanpostua galtzeko arriskuan daudenen enpresak ez ixteko eskatu dute

ERREDAKZIOA TOLOSA

Tolosaldeko herritarrak kalera atera ziren larunbatean azken hilabeteotan enpresa itxieren eraginez, kolokan dauden lanpostuak salbatzearen aldeko aldarria egiteko. Milaka lagunek zeharkatu zituzten Tolosako kaleak enplegua defendatzeko eskatuz, tartean Endaki, Antalis eta Marie Brizard-eko langileek.

Goizean goiz ekin zieten protestei manifestazioko bi zutabeek. Bata Aiztondo bailaratik abiatu zen, Endaki eta Marie Brizardeko langileez osaturik, eta oinez egin zuten Tolosara arteko bidea. Beste zutabeak Antalisko sarreran izan zuen abiapuntua.

Bi zutabeek 12:00etan egin zuten bat Trianguloan eta bertatik abiatu zen, beste ehunka herritarren babesarekin, Tolosako kaleak zeharkatu zituen manifestazioa. San Frantzisko pasealeku osoa hartu zuen luzeeran.

Burua Zezen plazan zela, azkenak Gernikako Arboren parean ziren.

Tolosaldea enpleguaren alde; borroka da bide bakarra; eta ez, ez, ez, despidorik ez! bezalako aldarrikapen oihuak entzun ziren manifestazioan zehar. Horrekin batera, 33 familia kale gorrian; Marie Brizard, 50 familia borrokan; edo lapurrak ez, lana bai bezalako mezuak irakurri ziren pankartetan.

Administrazioei eskaria

Manifestazioaren amaieran, LAB eta ELA sindikatuko bozeramaileek «eskualdeko arazo sozioekonomikoen aurrean bertako industria eta enplegua bermatuko dituen estrategia baten beharra» dagoela azpimarratu zuten, eta hori betetzeko deia egin zieten administrazio publikoei.

«Hamarkadak daramatzagu estrategia hori eskatzen, eta papergintza eta ehungintza gainbeherak ikusita alternatibak eraikitzen. Ibilbidea, ordea, bestelakoa izan da», azaldu zuen Oihana Lopetegik LAB sindikatuko ordezkariak.

Bestalde, Egoitz Iturbe, ELAko ki-deak, itxiera eta kaleratze bakar bat bera ere onartuko ez dutela esan

zuen: «Enplegu politika eraginkorrak eskatuko ditugu eta horretarako borrokatuko dugu. Administrazioei Tolosaldean alternatibak eraiki eta horren alde borroka eta lan egiteko exijituko diegu».

Lopetegik Gipuzkoako Patronalaren buruak egindako adierazpen batzuk kritikatu zituen. «Enpresen itxieren erantzukizuna Foru Aldundiaren gain, eta ELA eta LAB sindikatuengan utzi du. Gipuzkoako patronalaren buruak arazoaren muina hor kokatzen badu, zein irtenbide posible dugu euren interesetara gobernatzen dutenekin?».

Azken negoziazioak

Aste garrantzitsua dute aurretik Antalis eta Marie Brizardeko langile eta ordezkariak. Izan ere, negoziatzaileak legeko epea atzemaizten zitzaien Zizurkilgoei, eta bihar bukatuko zaie Albizturkoei. Atzoko egunak bilduta pasa zituzten bi lantegietako zuzendari eta langile-ordezkariak. Adostasunik lortu ezean, kaleratze gutuna jaso dezakete langileek, baina auzitara jotzeko eta bide guztiak agortzeko asmoa agertu dute.

• ataria@ataria.info •



sarrerak

Atarikideentzat 2 sarrera pare ditugu

Abenduak 21, larunbata
20:30ean
Tolosako Leidorren

Tolosako Orfeoiaren
Gabonetako Kontzertua



Tolosako Orfeoa
Orfeón de Tolosa

Faborito guztiak sailkatu dira II. Antton Pebet pilota txapelketako finalerdietarako

Erabakita daude ostiralean eta larunbatean jokatu diren finalerdietako pilotarien izenak

ERREDAKZIOA AMASA-VILLABONA

Larunbatean Amasa-Villabonako Behar Zana Pilotalekura hurbildu zirenek II. Antton Pebet Txapelketako txapela janzteko hautagai sendoak nortzuk diren ikusi ahal izan zuten. Tanto ederrez betetako hiru partida jokatu ziren, eta faboritoek finalerdietarako txartela lortu zuten.

Lehen partidatan, Irazustabarrena eta Aizpitarte kadeteek 22-12 irabazi zuten Matxain eta Aizpururen hutsunea bete zuten Alberdiren aurka. Matxain ederki saiatu bazen ere, beste bikotea askoz ere gehiago izan zen

kantxan, kolpe indartsuagoa izateaz gain, tantoak amaitzeko erraztasun gehiago aurkitu baitzituen aurrelari alegiarrak. Atzean, Aizpitarte nagusi izan zen une oro.

Jubenil mailako norgehiagokan, aurten maila bikainean dauden Labaka eta Erasun zizurkildarrek, erraz irabazi zieten Alcasena baigorriarrari eta Mateo lizarrarri, 22-8ko emaitzarekin. Erasunek, atzean Mateok baino segurartasun handiagoa erakutsi zuen, eta horrek, Labakaren errematerako aukerak handitu zituen. Honek, arratsaldeko tantorik ederrenetakoak egin zituen: boleak, gantxoak, dejadak... Alcasenak, gogo eta kemena jarri bazuen ere, kokka bat beherago dagoela nabarmendu zen.

Nagusi mailan, berriz, Xabi Urbieta eta Iturriagak osatutako bikoteak ia emaitza berarekin eta joko maila oso

altuarekin irabazi zuten Arrieta-Aizpitarte bikote hernaniarraren aurka. 22-9ko emaitzarekin nagusitu ziren eta tarteak handiagoa izan zitekeen azken txanpan Arrietak egindako tanto sortari esker izan ez balitz.

Urbietak joko maila ikusgarrian dagoela erakutsi zuen. Kolpe biziarekin, konfiantzaz tanto ederrak egin zituen. Atzean, Iturriaga Sartagudako pilotariak atzean izan zuen uneoro Aizpitarte. Altuera emanez pilota oso atzean jartzen zuen eta Arrietak ia partida osoan zehar defentsan aritu behar izan zuen.

Datorren asteburua partidez beteta dator Antton Pebet Txapelketan. Ostiralean, hilaren 20an, arratsalde jokatu dira lehen partidak. Larunbatean, San Tomas egunez, goizean eta arratsaldean izango dira, baita igande goizean ere.

• ataria@ataria.info •



Laskoraingo taldea. ATARIA

Garaipena Laskorainek, berdinketa Lauburuk

Ibartarrek 2-2 egin zuten etxean, liderraren aurka, eta horiek 2-5 irabazi zioten Goierri

Tabernak, berriz, 2-2ko emaitza lortu zuten liderraren etxean 0-2 galzten joan ondoren.

Laskorainen garaipena

Partida zaila zuen Laskorainek Urretxun. Goierri talde gogorra da eta kalitate handiko jokalariek ditu, baina tolosarrek estu hartu zituzten.

Hasierako minutuetan bi taldeek aurkariarekiko errespetu handiz jokatu zuten, baloia alde batera eta bestera mugituz. Laskorainen ateko sake baten ondoren iritsi zen arratsaldeko lehen gola, Gil kapitainaren eskutik. 0-1eko emaitzarekin iritsi zen atsedendira.

Kapitaina bera izan zen 0-2ko golaren protagonista bigarren zatia hasi eta berehala. Jokaldi horren ostean, etxeko taldeko atezaina kale-ratua izan zen taldea jokalaria bat gutxiagorekin utziz. Horitxoekin hirugarren gola Zumetak egin zuen, baina urretxuarrek segituan kontraeraso baten bidez lortu zuten lehen gola.

Partida erotzen hasia zen. Zumetak bere bigarren gola sartu, eta segidan urretxuarren erantzuna iritsi zen. Etxebek sartu zuen 2-5ekoa. Nabarmenezkoa izan zen Endika atezainaren lana.

ERREDAKZIOA TOLOSA

Lauburuk ezin izan zuen Concepto Egileren aurkako gipuzkoar derbia irabazi. Markagailuan aurretik ipini bazen ere, partida amaitzear zela lortu zuten ibartarren berdinketaren gola, eta gutxiagatik ez zuten eskuratzea garaipena liderraren aurka.

Kanpotarrak nagusitu ziren partiduko lehen minutuetan, baina Arevaloren mutilak gogor ziren defentsan lanetan. Seigarren minutuan lortu zuten gola etxekoek. Garmen izan zen golaren egilea, Uzkudunek pasatako baloi bati esker. Hiru minutu beranduago etorri zen elgoibartarren berdinketa, eta minutu parekatu batzuen ostean, penaltiz lortu zuten 1-2koa. Xabi Perezek lortu zuen berdinketaren gola partida amaitzeko hiru minutu falta zirela, eta irabazteko aukera ere izan zuen.

Jubenilek, berriz, 3-2 irabazi zuten Zarautzen aurka eta sailkapen nagusiko lehen postuan dira. Denak

Irudia Zizurkil



Ibarbia eta Garin, garaile ilargipean

Kirol Astea ospatu dute Zizurkil. Larunbatean XVII. Gau Krosa jokatu zen eta makina bat korrikalarik hartu zuen parte. Aitziber Ibarbia eta Eneko Garin izan ziren garaileak. Igandean, berriz, urteko zizurkilgo kirolaririk hobereni omenaldia egin zieten: Jon eta Igor Sasiain, Fredi Martinez, Jon Erasun, Asier Gallego, Aitziber Ibarbia, Ainhoa Amilibia, Peru Labaka eta Ibon Gonzalez izan ziren saritutako kirolariak. ATARIA

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Argitaratzailea: Tolosaldeko Komunikazio Taldea SL
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Zuzendaria: Ainhoa Oiartzabal.
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
P.E: ataria@ataria.info **Webgunea:** ataria.info
Papereko editorea: Eneritz Maiz.
Interneteko editorea: Imanol Garcia Landa.

Irratiko editorea: Jon Miranda. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818. tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.info
Villabona-Aiztondo: 687 410 022. villabona-aiztondo@ataria.info
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@ataria.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@ataria.info
Bezero arretra zerbitzua (zalantzak argitzeko...): **902 82 02 01**

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:

• Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, S.L-ko kideak:



Tolosaldeko
gizarte
eragileak

**Ataria-k
Bai
Euskarari**



Gipuzkoako Foru Aldundia

Umorea marraztu, kantatu eta kontatu

VI. Galtzakomik lehiaketako sariak banatu eta gero, afari ederra izan zen Ibarrako Sendi Ekintzan

AINHOA OIARTZABAL IBARRA

Seigarren urtez antolatu dute Ibarrako Udalak eta Galtzaundi euskara elkarteak Galtzakomik Lehiaketa. Parte hartzaile guztien artean aurtengo irabazle Maitane Gartziandiari saria eman eta Ibarrako kultur etxean komiki erakusketa zabaldu eta gero, Afari Txoua izan zen Ibarrako Sendi Ekintza elkartearen.

Dani Fanok eta Asisko Urmenetak marrazki bilakatu zituzten Xabier Silveira lesakarrak eta Txomin Azpirotz bertsolari anoetarrek kantatuko bertsoak, eta gauza bera egin zuten Anartz Iturbe billabonatarren hainbat txisterek.

Ibarrako soka tira taldea, eskualdeko jende ezaguna, Mandelaren hiletetako itzultzailea, Kataluniako herri galdeketa, Euskaltzaindiako gorabeherak... eta antzeko beste hainbat gai bilakatu zituzten afaltzen bildutako herritarren barre eragile.

• ataria@ataria.info •



Galtzakomik lehiaketan sarituenak izan direnak. ATARIA



Afari-Txouan komikiak egiten. A. OIARTZABAL

Agenda

DEIALDIAK

GAUR

ALTZO. Martxoan zendu zen Iñaki Epelde. Bere lanaren lagin zabal bat jarriko da udaletxeko ganbararen eta gaur izango da irekitze ekitaldia, 19:30ean. Bertan egongo da ikusgai gaurtik larunbatera bitarte, 18:00etatik 20:00etara. Zabaltze ekitaldian, Iñaki eta bere lana ondo ezagutzen dutenen argibideak jasotzeko aukera izango da.

ALEGIA. Maite Francoren eskutik ipuin kontaketa izango da liburutegian, 17:00etan hasita.

AMASA-VILLABONA. 2014. urteko aurrekontuak prestatzen burubelari dabil udal taldea, eta aurrekontu parte hartzaileak izan daitezten lehen pausua eman da. Udalak herritar oro gonbidatu nahi du bilera irekietara. Lehen bilera Amasako kultur etxean egingo da gaur, 19:00etan. Bigarrena, ostegunean Subijana etxean, 19:00etan.

ANOETA. Udalak gabonetako programazioaren azken loturak egingo bileran egingo du gaur, udal etxean, 18:30ean. Herritarrei bertaratzeko deia egiten diete.

IKAZTEGIETA. Herrigintza elkartearen Tolosaldeko bertsolari gazteekin bertso afaria izango da, hilaren 20an, ostiralean, 21:00etatik aurrera. Txartelak Ostatu eta Toki Alai tabernetan daude salgai, 15 euroren truke.

ZIZURKIL. Liburuaren Astearren barruan, ipuin kontaketa izango da Iriarte kultur etxean, 17:00etan.

ZINEMA

TOLOSA. Leidor zine aretoan Maitagarria filma euskaraz eskainiko dute txikientzat, 09:00etan eta 11:30ean.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esaneren eta iritzien erantzukizunik.



Farmaziak

Gaur

Tolosa:

Egunekoa:
Morant Barbier, R.
Zabalarreta lorategiak, 1.
Telefonoa: 943 67 38 49.
Gaukeoa:
Olarreaga Aranburu, M.
Martin J. Iraola etorbidea, 10.
Telefonoa: 943 67 24 38.



harpidedun izateak badu saria zozketa

1 Pedro Luis sorta

Bi sorta

www.conservaspedroluis.com



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**

2 Mantangorri eskulan tailerra

Bi ale

Ezaugarriak:
Haurrek sorkuntza lantzeko tailerra.
24 fitxak osatzen dute bilduma, guztiek,
sorkuntzaren alor ezberdinak lantzen dituzte.



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**


www.euskalherriko plaza.com

3 Donostiako Aquariuma

Bi lagunentzako bina sarrera

www.aquariumss.com

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**



Parte hartzeko deitu: **902-82 02 40** telefono zenbakira • Aste honetako astearte, asteazken eta ostegun goizean. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.